

Donostia'n bildu dira, Diputazio-jauregian, Arrue, Dassance Haritschelhar, Irigoyen, Lafitte, Lojendio, Mitxelena eta Villasante euskaltzaiñak; eta Artola, Anaia Berriotxo eta Etxaniz urgazleak.

Azken batzarreko agiria irakurria eta onartua izan da.

Gipuzkoa'ko Aurrezki-Kaxarekin izan diren ar-emanek mintzatu da Arrue: erabakia daukate 70.000 pezeta Euskaltzaindiari aurreratzea, korriturik gabe, *Gero*-ren zenbait ale erosteaz gaiñera. Agiria izenpetzea besterik ez da falta eta orretarako baimena eman zaio zadorlariari. Eskerrak eman bekizkio, Euskaltzaindiaren izenean.

Kontu berria zabaltzea erabaki da emengo Banco San Sebastian-en, Euskaltzaindiaren izenean, argitaraldi orren gora-beerak gaiñerako diru kontuetatik bereizteko.

Euskaltzain berrien autapena egin dute gero aurrean dauden zortzi euskaltzaiñek eta aurkeztuak zeuden iru urgazleek zortziña boto izan dituzte. Izendatuak gelditzen dira, beraz, euskaltzain onako iru lagun onek: Antonio M.<sup>a</sup> Labayen, Juan San Martn eta Aita Antonio Zavala, S. I.

Eskerrak eman bear litzaizkiokeala, dio zadorlariak, Donostiako *El Diario Vasco* egunkariari euskeraren alde egin duen lan ederragatik. Orrela egin bedi eta eskerrak eman bekizkio orobat *Basque Eclair* deritzanari aspaldian agertzen duen euskaltzaletasunagatik.

Urrengo gaia bertsolari-txapelketaren azkena izan da. Arrue'k dio batzordekoek, gauzak ongi aztertu ondoren, Anoeta pelota-plazan egitea erabaki dutela, sarrera andia duelako, datorren urteko Urteberri egunean. Ortik Euskaltzaindiak jasotzen duen dirutik komeni iruditzen zaiela puska politen bat gordetzea, bertsolarien laguntzarako, bear orduetan eta nora jo izan dezaten.

Saioen asiera goizeko 11-etan eta arratsaldeko 4 t'erdietan izango da eta Euskaltzaindiak jasoko dituen sarreretatik, erabaki da zenbat emango diren doarik. Gaiñerakoak salgai egongo dira iru egunetan Diputazio-jauregi ontan bertan.

Irigoyen'ek gero aditzera eman du nola izan diren Bilbao'n urte-oroko aurreraketak, eta sariak eman bear dirala; Ondarroan, datorren igandeko Lore-jokoetan, Aita Villasante izango da, Euskaltzaindiaren izenean. Ango sariak erabaki bear dituztenek orain bilduko dira, batzar-ondoren.

Irigoyen'k berak dio Diputazioak, bestetan bezala 50.000 pezeta emateaz gaiñera, agindu izan duela, itzez, beste orrenbeste emango dituela, Euskaltzaindiaren lanetarako. Irigoyen mintza bedi buruzagi den Ibarra jaunarekin ea zer jaso ditekian ikusteko.

Besterik gabe, oi den otoitzarekin bukatu da batzarrea.